

EGIA-OSTEAREN ANALISI FILOSOFIKO PRAGMATIKOA

Egia-ostea, hitzontzikeria eta XXI. mendeko iruzurak

Irati Zubia Landa

AUZI-EGOERA

- **XXI. mendeko plaza publikoan bi kontzeptu polemiko daude: *egia-ostea* eta *hitzontzikeria***
 - Egia-ostea: iritzi publikoan gertaera objektiboek baino, emozio eta uste pertsonalek eragin handiagoa duten egoera (Oxdord Hiztegia 2016).
 - Hitzontzikeria: egiarekiko axolagabetasunak ezaugarritzen duen diskurtso mota (Frankfurt 2005).
Geroztik, eztabaida akademiko zein sozialetan bolo-bolo dabilta termino biok-
- Kontzeptu biokin gure garaiaren berri eman nahi izan da. Are, berri txar baten eramaile dira: Egia-ostea eta hitzontzikeriaren hedapenak ematen duten aditzera egia krisian dagoen garai bat dela gurea. Alegia, **egiak ekiteko gaitasuna galdu duela XXI. Mendeko plaza publikoan**.
- Arlo desberdinetatik, egoera horren izaera eta, batez ere honen jatorria argitzeko ahalegina egin da
 - Zehazki, "*egia-ostearen paradoxa*" deritzona ebatzi nahi izand dute: nola den posible XXI. Mendean, egia eta ezagutza inoiz baino eskuragarri ditugun garaian, egiarekiko bizikidetzan arazo bat izatea (Pinker 2018, Wight 2018, Block 2019).
 - Ez hori bakarrik. Egoera horren inplikazio eta arriskuak zein diren ere argitu nahi izan dira.
 - Paradoxa hori ebatzi nahian dabilta diziplina anitzetako adituak: psikologoak, kazetariak, politologoak, soziologoak... Argitu al lezake zerbaitek filosofoak?

FILOSOFOAREN ABIAPUNTUA

Egia-ostearen inguruko galderak, gure garaiari buruzko galderak dira. Baina, egiaren ingurukoak ere badira. Horietaz zeresana egon daiteke filosofiatik.

- Areagotu da gezurra XXI. Mendean?
- Informazio gehiago edukitzeak jakitunago egin gaitu?
- Lehen baino ez-jakinagoak gara?
- Ikuspuntu moral batetik, zer da gaitzesgarriago, gezurra esatea edo ez-jakina izatea?
- Egiari kasurik ez egitea, ez-jakina izatea da edo gezurretan aritzearen seinale?
- Demokrazia batean, justifikatuta dago egiari kasurik ez egitea?
- Babestu behar da egia, beste guztiaren gainetik?

Filosofoak, galdera horiei erantzuteko:

- Auzia deskribatu (transbersalki)
- Inplikazioak eta **letra txikia irakurri** (kritikoki)

HIPOTESIA

- Egia-ostearen faktore desberdinak kontuan izanik, egia-ostea **egiarekiko konpromisoa** gutxitzen den egoera bat da.
- Horrek gehiago du **hitzontzitik**, ez-jakin edo gezurretik baino.
- Ondorioz, gure garaia egia-ostearen garaia bada, honen inplikazio eta arriskuak ere ezagutzeko baliagarria izango da hitzontziaren inguruko ikerketa.

HELBURUAK

- Egia-ostearen atzean dauden **faktoreak** argitzea
- Faktore horien **inplikazio** eta arriskuak argitzea
- Horiexek **hitzontziarekin** duten lotura argitzea

IKERKETAREN MUINA: ZER DA EGIA-OSTEA?

FAKTORE KOGNITIBOAK

- Psikologia kognitiboa:
 - Isuri kognitiboak eta arrazonamendu motibatua
- Identitate Sozialaren Teoria:
 - Leihakortasun sozialaren estrategiak
 - Sormen sozialaren estrategia

FAKTORE TEKNOLOGIKOAK

- Simetria eta balantza orekatua
- Erresonantzia-kutxak
- Disponibilitatearen eta afektuaren heuristika
- Premiazko kategoriak lausotzea

FAKTORE FILOSOFIKOAK

- Ideia erlatibista eta posmodernoen hedapena edo aprobetxamendua?
- Premiazkoak diren zenbait nozio eta bereizketa ahuldu dituzte: egia, objektibotasuna, iritzi eta ezagutzaren muga...

FAKTORE IDEOLOGIKOAK

- Gezurrak esan gabe, badira zenbait estrategia iruzurti: Zalantzaren merkantilizazioa
- Egiaren eta politikaren arteko gatazka, erraz ebazten ez den gatazka.

ETA ZER ESAN NAHI DU HORREK?



Egiarekiko konpromisoa gutxitzen den egoera da egia-ostea: egiari kasurik ez egitea eroso den garaia.

- Egiarekin errespetuz jarduteko premiazkoak diren zenbait kategoria eta balio kamustu egiten direla giro honetan. Psikologia kognitiboko aurkintzek eta hedabideen inguruko ikerketek ere berresten dute hori. Hainbat motibogatik, gero eta zailagoa da egiarekiko arduratsu jokatzeko eta eztabaidatzea esfera publikoan. Are, batzuetan arduragabe jokatzeko da aukera erosoena.

ONDORIOZ...

- Egiaren ahalmena galdu dugu, baita premia gehien dugun momentuetan ere. Galera handia da hori. Ez, bereziki, egia ezkatzen delako edo egiaren bilaketa jardun zaila delako. Ezta ere egiaren aroa egirik gabeko aro bat delako. Haatik, egia-ostearen gakoa da egia parez pare dugunean ere ez diogula kasurik egiten. Horrek baditu inplikazio ugari, bai bizitza publikoan, bai filosofian eta baita gure eguneroko bizitzan ere. Inplikazio horiexek, gainera, ez dira zehazki gezurraren edo zentsuraren berberak. Aitzitik, hori egiarekiko axolagabetasuna dela medio gertatzen da, nagusiki.
- Horrek guztiak iradokitzen duen egia-ostearen argazkiak, Frankfurt (2005) eta De Waalen (2006) aburuz hitzontzi bilakatzera eraman gaitzakeenaren inguruko azalpen nagusiaren tankera hartzen du. Haien aburuz, **egiazko usteen** eta **uste faltsuen** arteko bereizketak egiteko eta ikerketa zintzo bat aurrera eramateko itzaropena galdu duen gizarte batean **hitzontzikeria ia saihetsezina da**. Batez ere, gizarte horretan norbere iritzia emateko presioa etengabea bada. Badirudi hori gertatzeko aukerak daudela egungo plaza publikoan, bereziki plaza digitalean.
- **Hori horrela, hitzontziaren azterketak lagundu dezake argitzen egia-ostearen izaera eta, bereziki, egia-osteko joera horren inplikazioak.**